



Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez ebatzen baita 2026-2027 ikasturterako unitateen zehaztapena eta laguntzako langile osagarriak ituntzea; bai eta hezkuntza-itunen araubiderako sarbidea ere, 2026-2027 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko aginduaren bidez deialdia egiten da hezkuntza-itunak berritzeko eta hezkuntza-itunen araubideari heltzeko (kasu bakoitzeko unitateak zehaztuta), bai eta laguntzako langile gehigarriak ituntzeko ere. Itunak 2022-2023 ikasturtetik 2027-2028 ikasturtera arte egongo dira indarrean.

Agindu horren 1. artikulua ezartzen duenez, itunpeko unitateak eta laguntzako langile osagarriak aldatzeko, urtero egingo da ofiziozko proposamena eta, hala badagokio, eskabide-proposamena. Era berean, xedatzen du itunpekoak ez diren ikastetxe pribatuak urtero eskatu ahal izango dutela hezkuntza-itunaren araubidean sartzea.

Bestalde, 11. artikulua zehazten du ikastetxeek zer epetan eta nola onartu beharko duten Hezkuntza Sailak ofizioz egindako proposamena, bai eta eskabideak aurkezteko epeak eta modua ere.

Horregatik guztiagatik, ofiziozko proposamena jakinarazita, ikastetxeek aurkeztutako eskaerak eta alegazioak aztertuta, eta irakaskuntza bakoitzari dagozkion proposamenak eginda, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2026-2027 ikasturterako laguntza-unitate zehatzak eta langile osagarriak zehaztea onartzea, Eranskinaren arabera.

2. artikulua.– Eranskinean zerrendatzen diren ikastetxeei hezkuntza-itunerako sarbidea ukatzea, ukatzeko arrazoia adierazita.

3. artikulua.– Ez dira aintzat hartu alegazio-epean eskatutako unitateak edo langile osagarrien baliabideak, baldin eta itunpeko ikastetxeek aurkeztutako eskabideetan jasotakoa gainditzen badute, haiek kontuan hartzeak eskatutakoa aldatzea ekarriko bailuke.

4. artikulua.– Hezkuntza-itunen aplikazioa baliatuz, ikastetxe pribatuak sarbidea izango dute itunaren etaparen/mailaren arabera banakapena ikusteko, bai eta, hala badagokio, ukapenaren arrazoia ere.

5. artikulua.– Agindu honen eranskinean jasotzen diren unitateak eta langile osagarriak 2022ko ekainaren 21eko 17. artikuluan xedatutakoaren mende egongo dira.

6. artikulua.– Hezkuntza-itunen Araudia onartzen duen irailaren 8ko 293/87 Dekretuaren 32. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz, ikastetxeek ez dute inolako diru-kopururik jasotzerik izango ikasleengandik irakaskuntza dela-eta, irakaskuntza guztiak itun osoarekin finantzatzen baitira.



7. artikulua Eranskinean jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko 2026eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legearen itunpeko ikastetxeak mantentzeko modulu ekonomikoen arabera kalkulatu dira, eguneratuta.

2027. urteko lehenengo bi lauhilekoei dagokienez, Aurrekontuen Legeak 2027ko ekitaldirako ezartzen dituen ekonomia-moduluak aplikatzearen ondorioz egin beharreko doikuntzak egingo dira, garaia heltzen denean.

Agindu honetan agertzen diren diru-zenbatekoak gehienekoak dira, eta barne hartzen dituzte irakasleen eta gainerako langileen gastuak.

Goragoko paragrafoan ezarritakoa hala bada ere, ordainketa eskuordetuaren sistemak eragiten dien mailetan, honen arabera ordainduko zaie antzinasuna inoren kontura lan egiten duten langileei: ikastetxean irakasle bakoitzak duen antzinasunaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Hezkuntzako sailburuari agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Hezkuntzako sailburua,
BEGOÑA PEDROSA LOBATO.